

## **5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK**

Bezeroekin komunikatzeko kanal gisa e-maila eta telefono bat erabiltzen dugu. Horretaz gain, online ere jartzen gara harremanetan hainbat sare sozialen bitartez (Web orria, Instagram, Facebook, Twitter, Pinterest...). Banaketa kanalik ez dugu behar izan, aplikazio bat delako. Salmenta kanala online da.

Gure aplikazioa ezagutarazteko, ikastetxeekin harremanetan jarri gara, bertako ikasleek gure aplikazioa ezagutu zezaten. Gure bozeramaileetako bat prest egon da ikastetxeetara joan eta hitzaldiak emateko, gure aplikazioaren erabilera azaltzeko.

